

NOLA JARRI BIZITZA ERDIGUNEAN? Ekonomia feministaren oinarriak

Krisi testuinguru honetan, genero ardura naturalizatuak egonkortzen ari dira. Ekonomia feminista lan saio honen bitartez, generoak duen dimentsio sozioekonomikoan sakonduko dugu. Emakumeak eta gizonak ekonomian kokatzeaz haratago, feminitatea eta maskulinitatea ekonomian nola eraikitzen den ikusiko dugu. Bizitza prekarioetatik bizitza gozagarrietara salto egiteko lehen pausuak emateko saioa dugu hau.

HELBURUAK

- Ekonomiaz jabetzea, eztabaida teknikoa izatetik eztabaida politikora salto egitea.
- Gure buruak eta gorputzak sistema ekonomiko honetan aurkitzea.
- Kapitalismoaren eta heteropatriarkatuaren arteko loturaz hausnartzea.
- Ekonomian dugun paperez jabetu eta ahalduntzea, batez ere krisi testuinguru honetan.
- Bizitzaren iraunkortasunaren proposamena jaso eta bizitza zentroan jartzeko lehenengo pausuak ematea.

METODOLOGIA

Saio teoriko praktikoa izango da. Ekonomia feministaren proposamenak behin azalduta, helburua litzateke, hainbat dinamiken bitartez gure buruak aurkitzea sistema ekonomiko honetan. Ekonomia bera gure azaletan, gorputzetan sentitzea. Bakarkako ariketa praktikoak, taldeko ariketak eta eztabaidetan oinarritzen da tailerra.

FORMATUAK

Ekonomia feministara sarrera beti aukeratu behar harko da. Ondoren, urrengo moduluak aukeratu daitezke bakoitzaren nahien arabera:

1- Ekonomia Feministara sarrera. (h 1)

Zer da ekonomia? ze paper dut nik bertan? nola sentitzen naiz ekonomian? ze leku dute merkatutik kanpora egiten diren jarduerak ekonomian? Nolako sujetuak sortzen ditu ekonomiak?

2- Zaintzatik bizitzaren sostengura (h1)

Nork zaintzen du eta nor? Gu nola kudeatzen ditugu zaintzak? Zertarako zaintza? Nola ez idealizatu? Ez zaintzeko eskubidea bermatuko dugu? Eta zainduak ez izateko eskubidea?

3- Feminitatea eta maskulinitatea ekonomian (2 h)

Generoak eraginik dauka egiten dituzun lanean eta egiten duzun moduetan? Feministatea eta maskulinitatea ze modutan dago lotuta gure praktika ekonomikoei? Ze pribilegio edo erreztasun ditut?

4- Zein da nire krisia? (2 h)

Nire bizitza prekarioagoa al da krisi testuinguruan? ze zentzutan? ze estrategia ekonomiko jarri martxan bizitza gozagarriak izateko?

5- Bizitza prekarioetatik bizitza bizigarrietara (2 h)

Zein da bizitzeak merezi duen bizitza bat? Ze beharizan eta desio ditut? Zein egituren bitartez sostengatuko dugu bizitza hori?